



Trebakuntza 2010/05: EZIK / EZ EZIK / IZAN EZIK

Batzuetan nahasian erabiltzen ditugu goiko hiru forma horiek. Eta berez, oso esanahi desberdina daukate.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Pilotari gazteak kategoria guztietako txapelak irabazi ditu, bat **ez ezik**.*
2. **Osoko Bilkuran alkatea eta zinegotzi guztiak egon dira, partidutik kaleratutakoa **ezik**.*
3. **Era guztietako kultur emanaldiak izan ditugu hilabete honetan, antzerkia **ezik**.*
4. **Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, Artola kalea **ez ezik** beste guztia abendurako gertu egon behar baita.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

IZAN EZIK forma salbuespenak adierazteko erabiltzen dugu:

- *Ikasle guztiak ikastaroan daude, Tere **izan ezik**.*

EZ EZIK forma, aldiz, “horrez gainera” esateko erabiltzen dugu, eta derrigorrez **ERE** erabiltzera behartzen gaitu:

- *Irakurri **ez ezik** idatzi **ere** asko egiten du gazte horrek.*

Eta **EZIK** “ezean” formaren sinonimotzat har dezakegu, hau da, ezezko baldintza egiteko erabiltzen dugu:

- *Garaiz ibili **ezik/ezean**, ez ditugu finalerako sarrerak lortuko. (Garaiz ibiltzen ez bagara, ez ditugu finalerako sarrerak lortuko).*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



Beraz, esaldi zuzenak hauek dira:

1. Ad. Pilotari gazteak kategoria guztietako txapelak irabazi ditu, bat **izan ezik**.
2. Ad. Osoko Bilkuran alkatea eta zinegotzi guztiak egon dira, partidutik kaleratutakoa **izan ezik**.
3. Ad. Era guztietako kultur emanaldiak izan ditugu hilabete honetan, antzerkia **izan ezik**.
4. Ad. Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, kale guztiak abendurako gertu egon behar baitira, Artola kalea **izan ezik**.

Hau da, Artola kalea ez beste guztia abendurako gertu egon behar da.

5. Ad. *Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, Artola kalea **ez ezik** beste guztia **ere** abendurako gertu egon behar baita*

Hau da, dena, dena, Artola kalea barne, abendurako gertu egon behar da.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org